

OLATU TALKA 2019: KONTXA GAUMARKET

Aurkezpena

Kontxa Gaumarket, Olatu talka jaialdiaren baitan 2015 urtetik aurrera Kontxako arkupeetan antolatzen dugun sortzaileen gaueko merkatua da. Helburu nagusiak, sormena, diseinua eta artean diharduten bertako eragile berriak ezagutarazi eta hiriko gune berezi hau jarduera berritzaile baten bitartez biziberritzea izanik, nortasun handiko merkatua dugu Kontxa Gaumarket.

Salmenta plataforma gisa duen potentzialari uko egin gabe, sormen forma desberdinak bildu eta bistaritzen dituen erakusleihoaren izaera du Kontxa Gaumarketek.

Datak eta ordutegia

Maiatzak 31 (ostirala) eta ekainak 1 (larunbata) 18.00 - 24.00

Parte-hartzaileak

- Euren produktuak erakutsi eta salmentan jartzea nahi duten eta **denda fisikorik ez duten** artista eta sortzaileei zuzendutako merkatua da.
- Izen-emateak www.olatutalka.eus webguneko formularioaren bitartez soilik egin ahal izango dira, 2019ko urtarrilaren 31ra arte.

Merkatuaren ezaugarriak

- Merkatuan parte-hartzea doakoa da.
- Guztira 80 posturen parte-hartzea aurreikusten dugu (40 gau bakoitzeko).
- Postu bakoitzak zutabeen arteko tarte baten luzera okupatzeko aukera izango du, antolakuntzak jarritako mahai eta aulkiak (eskatutakoaren arabera) eta argi-indarraz hornituta.
- Arkupeen ohiko argiztapena "buia" lanparen bitartez indartuko da, merkatuaren irudiari batasuna eta nortasun bereizgarria ere emanez.
- Postu bakoitzeko arduradunak, bere gunearen diseinua, muntaia eta desmuntaia egingo ditu. Ezingo da koordinazio taldeak finkatutako azaleratik kanpora produkturik jarri.

Muntaia / desmuntaia

- Merkatuaren muntaia, bi egunetan, 14.00etatik aurrera egingo da eta desmuntaia jarduera bukatutakoan, gauez, 24.00etatik aurrera.
- Parte-hartzaileek euren produktuen erakusketaren muntaia eta desmuntaiaren ardura izango dute.
- Zamalanak, muntaia eta desmuntaiaren koordinazioa Kontxa Gaumarketaren antolakuntza taldearen esku egongo da.

Hautaketa

- Izen-eman dutenen kopurua 80 postu baino gehiagokoa izango balitz Kontxa Gaumarketeko koordinatzaileek eta Olatu Talkako antolakuntzak osatutako komite batek aukeratuko lituzke parte hartuko duten postuak, merkatuaren kalitatea, oreka eta aniztasuna kontutan hartuz.
- Antolakuntzatik izen-eman duten eragile guztiekin harremanetan jarriko gara, telefonoz edo posta elektronikoz bidez, postua lortu duten ala ez duten komunikatzeko.